

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MEZKIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda, eta kobratzeko moduan jartzea, borondatezko epean, 2021eko udako ordainagiriak

Prestatu delarik Mezkiako etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2021eko udako zergadunen errolda, jendaurrean jarriko da errolda hori hamabost egun balio-duneko epeaz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeke eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteke.

Interesa dutenek Mezkiako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek erroldan jasotako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiteko funtzioa betetzen du, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsioa, edo hura amaitu ondorengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2021eko abenduaren 9tik 2022ko urtarrilaren 9ra artekoa da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2022ko urtarrilaren 9an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Mezkiako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Mezkiako, 2021eko azaroaren 5a

Lehendakaria

JUAN CARLOS RUIZ DE MENDOZA